



INGURUMEN-IKUSKAPENEN JARDUEREN MEMORIA URTEA: 2022

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
Administrazio-unitatea: Ingurumen-ikuskapena

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Proiektuen zerrenda	2
2.1.- Proiektua: 2022 IPPC segimendu-ikuskapena	2
2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2022	6
2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena.....	10
2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna	11
2.5.- Proiektua: Hondakinak lekualdatzea	15
2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan	15
2.7.- Proiektua: EAEko nikel-mailak kontrolatzea (INOX).	16
2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa	17
2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa	18
3. Emaitzak	23
4. Ondorioak	24



1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritzako Zerbitzuak 2022ko ekitaldirako zehaztutako ikuskapen-programari lotuta egindako jarduketak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasota daude 2022ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1.- Proiektua: 2022 IPPC segimendu-ikuskapena

Erreferentzia: 2022-01

2.1.1.- Jarduketak

503 ikuskapen egin dugu, eta horietatik 161 enpresetan bertan izan dira; hau da, aurrez aurrekoak izan dira, eta 342 dokumentu bidezkoak izan dira, ingurumen-zaintzarako planak eta ingurumen-organoetatik errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatze aldera. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokionez, 139 jarraipen-ikuskapen izan dira (programatuak) eta gainerako 22ak programatu gabeko ikuskapenak izan dira.

Ikuskapenen ondoriozko aktak egin ditugu, eta horiekin lotutako txostenak bidali dizkiegu enpresei, baita, beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak egin ere.

Era berean, sailaren webgunean argitaratu ditugu aurrez aurre egindako programatutako ikuskapenei dagozkien txostenak.

2.1.2.- Ondorioak

Ondorio nagusia da proiektuaren hasierako programazioa bete dugula: aurreikusitako 147 ikuskapenetatik 139 instalazio ikuskatu dugu (4 instalazio behin betiko ixtear dago). Era berean aipatu behar dugu programatuta egon eta egin ez dugun 2 instalazio jarduerarik gabe dagoela, 3k baimena lortu du 2022 urtean, eta ondorioz 12 hilabeteko epea dute lehen ikuskapena izateko, bat Ingurumen Baimen Bateratua lortzeko izapideak betetzen ari da, eta beste biak IPPC araudiaren eragin eremutik kanpo daude.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren ikusi dugu betetze-maila nabarmeneko, hau da, handiko edo ertain-handiko enpresen kopurua 2021ean lortutakoaren antzekoa izan dela, atal horretan 85 enpresa baitago. Hala ere, betetze-maila ertain baxua eta baxua duten enpresa kopurua 2022an 2021eko maila berean egon da, 16 enpresa, alegia. Ikuskaturiko gainontzeko instalazioek betetze-maila ertaina izan dute.

Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar dugu IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten




aldizkakotasuna ere ezartzen da, jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, 1. taulan eta 1. irudian, proiektuaren datu orokorrak adierazten dira. Hain zuzen ere, egin ditugun programatutako ikuskapenen ondoren ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari dagozkion ondorioak adierazten ditugu.

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEEKIN
139	19	120

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten instalazioen kopurua




1. irudia. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten ikuskatutako enpresen banaketa

2. taulan eta 2. irudian agertzen da antzeman ditugun ez-betetzeen kopurua, egindako programatutako ikuskapenen ondoren, zehaztutako ez-betetzearen larritasunaren arabera.

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
498	434	57	7	0

2. taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta




2. irudia. Ez-betetzeen banaketa, larritasunaren arabera

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

3. taulan eta 3. irudian, enpresen kopurua adierazita dago, arrisku-kategoriaren arabera. Aipatu beharra dago ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren osteko arriskuaren arabera ezartzen dela: AK=1, urtean behingo aldizkakotasuna; AK=2, bi urtean behingo aldizkakotasuna; eta AK=3, hiru urtean behingo aldizkakotasuna.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
135	31	45	59

3. taula. Enpresen kopurua, arrisku-kategoriaren arabera




3. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku-kategoriaren arabera

BETETZE-MAILA

4. taulan eta 4. irudian, ikuskatutako ikuskapenen betetze-maila adierazita dago.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
135	59	26	33	9	8

4. taula. Enpresen kopurua, betetze-mailaren arabera



4. irudia. Instalazioen banaketa, betetze-mailaren arabera



2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2022

Erreferentzia : 2022-02

2.2.1.- Jarduketak

IPPC ez diren jardueren ikuskapena kontratatutako Ikuskapen Zerbitzuko langileok ditugu, bai eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeek ere, ingurumen-organoaren jarraibideen arabera.

2022ko Programan berariazko helburu ezarri genuen ikuskatzea IPPC ez diren 225 jarduera, bai eta 2021ean ikuskaturiko enpresei jarraipena egitea ere, aurkitutako desbideratze guztien %75 zuzentzeko asmoz.

Hala, 2022ko ekitaldian 223 ikuskapen egin dituzte ILEek, eta 2 Ikuskaritza Zerbitzuak. Horrenbestez, berariazko helburua osotasunean betea izan da.

Ikuskapen horietatik 21 izan dira IPPC ez diren hondakinak ezabatzeko instalazioetan; instalazioa horiek Uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak araututa daude, zeinaren bidez arautzen den hondakinak hondakindegietan ezabatzea.

Aplikatu beharreko legeriarekiko desbideratzeak daudela egiaztatua izan denetan, enpresa horiei eskatu diegu egoera horiek zuzentzeko. Nabarmendu behar dugu, desbideratzeak txikiagoak izan direnetan, administratuarentzako izapideak sinplifikatze aldera, zuzentzeko errekerimendua igorri ordez erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezteko eskatu diegula.


Era berean aztertu ditugu egindako agindeiei enpresek eman dieten erantzunen agiriak, eta beharrezko izan denean bigarrenez, eta hainbat kasutan hirugarrenez, eskatu diegu zuzenketak egiteko. Ido horretan, 107 dokumentu-berrikuspen egin dira.

Berariazko bigarren helburuari dagokionean, 2021ean ikuskatu eta ez betetzeak dituzten enpresei jarraipena egin diegu, desbideratzeen %75 zuzentzeko asmoz. 2021eko ekitaldiko ikuskapenetan, 1535 desbideratze topatuak izan ziren, eta horietako 458 desbideratze zuzendu izana egiaztatua izan da; hori aurkitutakoen %30 da.




2.2.2.- Ondorioak

2022ko ikuskapenen emaitzak aztertuta, esan dezakegu ikuskapenen % 43k betetze-maila altua/ertain-altua izan dutela (2021ean %22koa izan zen), % 37k betetze-maila ertaina (2021ean %29koa izan zen) eta % 20k betetze-maila ertaina/txikia (2021ean %35koa izan zen) (ikus 5. eta 6. irudia).




5. irudia. IPPC ez diren instalazioen betetze-mailaren ebaluazioa 2022an



6. irudia. Betetze-mailaren eboluzioa 2022an

Bestalde, 936 desbideratze aurkitu dute, 2021ean baino %39 gutxiago. Zentzu horretan, ikuskapenen ondoren kasuen %61n instalazioari desbideratzeak zuzentzeko agindeia igorri diogu, 138 agindei igorri dugu, alegia (2021ean, kasuen %73an izan zen); kasuen %25en, desbideratze txikiak ziren heinean, nahikoa izan da instalazioen titularrek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea (57 adierazpen guztira); eta kasuen %13n, ez dugu ezer eskatu behar izan (ikus 7. irudia)


Ikusten dugunez, ikuskapenetan, sakonak diren aldetik, askotan, modu batera edo bestera zuzendu beharreko desbideratzeak hautematen dira. Aipatzekoa da ingurumen-araudia oso zabala dela eta etengabe garatzen ari dela, eta proiektu honen esparruan ikuskatutako instalazioek ez dute izaten, oro har, ingurumenera soilki bideratutako giza baliabiderik.



7. irudia. IPPC EZ diren ikuskapenen ondorengo jarduera



Bestalde, hondakinak ezabatzeko alorra aztertuta, 2022an egindako 21 ikuskapenen ondorioz, ikuskapenen % 32k betetze-maila altua/ertain-altua izan dute, %26k betetze-maila ertaina, eta % 42k betetze-maila ertain txikia (ikus 8. irudia).



8. irudia. IPPC EZ diren hondakinak ezabatzeko operadoreen betetze-maila



2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena

Erreferentzia : 2022-03

2.3.1.- Jarduketak

Ingurumen Laguntzarako Erakundeak (ILE) ikuskatzeko proiektuak ezarritako plangintzaren baitan, 2022an hainbat zeregin bete dugu. Alde batetik, Ikuskaritza Zerbitzuko langileok EAEko atmosferaren alorrean aritzen den hainbat ILE kontrolatu dugu; horrela, guztira 'in situ' lau ikuskapen eta agirien ikuskapen bat egin ditugu.

Gainera, antzemandako akatsak konpontzea eragin dugu eta ikuskapenen txostenen eta emaitzen jarraipena egin dugu. Eta, zentzu horretan, Ingurumen Iraunkortasuneko Sailburuordetzaren ILEak kontrolatzeko eta ikuskatzeko gida ere eguneratua izan da.

Beste alde batetik, ENACekin batera parte hartu dugu EAEko Ingurumen Laguntzako Erakunde baten ziurtagarria, emisioak kontrolatzeko esparruan, berrikusteko urteko auditorian.

Era berean, aldaketak erregistratzen jarraitu dugu, eta alta eman diegu Ingurumen Kontrolerako Erakunde berriei, EAEko Ingurumen Kontrolerako Erakundeen Administrazio Erregistroan. Zehazki, II. mailako hiru Ingurumen Kontrolerako Erakunde berri erregistratu dugu. Aldi berean, eta behar berriei erantzuteko, EAEko Ingurumen Kontrolerako Erakundeen Administrazio Erregistroaren administrazio-datuak eguneratu ditugu.

Azkenik, zehaztu behar dugu ez dugula bete EAEko IPPC industria-instalazioen zarataren kontrolaren arloan jarduten duten ILEei egindako ikuskapenen ebaluazioarekin eta prozedurarekin lotutako zeregina.

2.3.2.- Ondorioak

2022ko programan ezarritako helburu eta xede gehienak bete ditugu.

Bete egin ditugu ikuskapenak egitearen eta ENACekin elkarlanean aritzeko helburuak. Azpimarratu beharra dago bete dugula ikuskapenetan ILEei administrazioak beraien jarduera gainbegiratzen duela jakinarazteko helburua ere, eta egiaztatu dugu araudia betetzen dela, fokuen neurketari dagokionez.

Bestalde, eguneratu ditugu ILEak kontrolatzeko eta ikuskatzeko gida eta EAEko Ingurumen Kontrolerako Erakundeen Administrazio Erregistroa.



2.4.- *Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna*

Erreferentzia: 2022-04

2.4.1.- **Jarduketak**

2017ko urriaren 30ean, urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

Aginduan jasotzen den bezala, 1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eraman nahi dituzten jarduerari datzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2019ko urriaren 15ean, urriaren 23ko TEK/1023/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

3. lehentasun-mailako jarduerak finantza-bermea izan behar dute, 2021eko urriaren 16tik aurrera garatzen duten jarduerari edo jarduerari dagokien ingurumen-erantzukizunari aurre egin ahal izateko, etxeko hegaztien edo txerrien hazkuntza intentsiboko jarduerak izan ezik, horiek nahitaezko finantza-bermea izan beharko baitute 2022ko urriaren 16tik aurrera.

Ingurumen-erantzukizunari buruzko, urriaren 23ko, 26/2007 Legearen 24 artikulua ezartzen du, besteak beste: *“eskudun agintariak dagozkion kontrol-sistemak ezarriko ditu, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzeko”*. Era berean, artikulua horrek ondorengo ere ezartzen du: *”berme horren zenbatekoa jardueraren ingurumen-arriskuen azterketatik edo baremo-tauletatik abiatuko da, eta Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen duen metodologiaren arabera eginak izango dira”*. Erregelamendu bidez ezarritako metodologia abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuak onartutakoa da.

2022ko ekitaldian zehar, finantza-bermea jarri behar duten operadorei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie, 26/2007 Legetik eratorritako betebeharrak bete ditzaten. Bestalde, 1., 2. eta 3. lehentasun-maila duten operadorei kontrolak egin zaizkie, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legeak ezarritako betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko.



2.4.2.- Ondorioak

Esan dezakegu 2022rako ezarritako helburuak eta xedeak osorik beteak izan direla. Zehazki, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legean adierazitako nahitaezko finantza-bermearen eraketa jakinaraztera behartuta dauden 298 operadore identifikatu dugu, eta egiaztatu dugu identifikatutako operadore guztiek aurkeztu dutela Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen 24. artikuluan deskribatutako jakinarazpena. Aldi berean jarraitu dugu ingurumen-arriskuen analisiak aztertzen, erregelamendu bidez ezarritako metodologia betetzen dutela ziurtatzeko.

Ondoren, 5., 6. eta 7. tauletan, operadoreen eta aurkeztutako dokumentazioaren kontrolari buruzko datuak aurkezten dira.

1. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2022/12/31n (Derrigortasun-data: 2018/10/31. APM/1040/2017 Agindua)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	12	0	12
IPPC eta SEVESO	23	0	23
SEVESO	25	0	25
GUZTIRA	60	0	60

5. taula. 1. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.

2. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2022/12/31n (Derrigortasun-data: 2019/10/31. APM/1040/2017 Agindua)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Galdaezintasuna GF	Guztizkoak
IPPC	74	1	7	82

Oharrak:

- 7 instalaziok bete behar dute Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, titulartasun publikokoak direlako.
- Enpresa 1, erantzukizunpeko adierazpenik eta ingurumen-arriskuen azterketarik aurkeztu gabe.

6. taula. 2. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.



3. lehen tasun-mailako instalazioen egoera 2022/12/31n (021/10/16 ED. Txerrien eta etxeko hegaztien hazkuntza intentsiboko haztegiatarako, 2022/10/16. TEC/1023/2019 Agindua)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Galdaezintasuna GF	Guztizkoak
IPPC	141	5	1	147
IPPC Txerri eta hegaztien etxaldeak	3	6	0	9
GUZTIRA	144	11	1	156

Oharrak:

- Instalazio bat bete behar dute Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarria, titulartasun publikokoak direlako.


7. taula. 3. lehen tasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak

Operadoreek erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztu ditzuzten agirei hainbat kontrol egin ondoren, honako jarduketak hauek egin ditugu:

- agindeiak igorri dizkiegu erantzukizunpeko adierazpena eta, hala dagokienean, beharrezkoa duten finantza-bermea garaiz aurkeztu ez duten 12 operadoreei.
- 3 lehen tasun-mailako operadoreek aurkeztutako 144 agirien forma berrikuspen; horrela egiaztatu dugu aurkeztu ote duten Ingurumen erantzukizunari buruzko Legearen 24 artikulua eskatutako erantzukizunpeko adierazpena, bai eta gainontzeko derrigorrezko agiriak ere (ingurumen-arriskuen analisia, derrigorrezko finantza-bermea eratzea, ISO 14001 edota EMAS).
- Operadoreek aurkezturiko 51 ingurumen-arriskuen analisi berrikusi dugu, analisi horiek arautegiak ezarritako metodologia bete ote duten ziurtatzeko.
- 17 errekerimendu igorri dugu, operadoreek aurkeztutako ingurumen-arriskuen analisiak zuzentzeko; izan ere, arriskuen analisiak berrikustean, erregelamenduz ezarritako metodologiarekiko desbideratzeak daudela hauteman dugu.



2022an egindako arrisku analisiak aztertuta izandako emaitzek adierazten dute %12k betetze-maila altua izan duela, %63k betetze-maila ertaina-altua, %13k betetze maila ertaina, %8k betetze-maila ertain-txikia eta %4k betetze-maila txikia (ikus 9. irudia)



9. irudia. 2022an berrikusitako ingurumen-arriskuen analisiaren betetze-maila



2.5.- Proiektua: Hondakinak lekualdatzea

Erreferentzia: 2022-05

2.5.1.- Jarduketak

2022ko ekitaldian, EAEko hainbat operadorek egindako hondakin-garraioen 12 ikuskapen espezifiko egin dugu, eta lau ikuskapen Bilboko Portuan eta 22 ikuskapen errepidezko hondakin-lekualdaketetan.

Aldi berean, hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu dugu, eta mugaz gaindiko hondakinen lekualdaketak egiten dituzten operadoreei indarrean dagoen legeriaren ondoriozko betebeharren berri eman diegu.

2.5.2.- Ondorioak

Programazioa bete da; izan ere, operadoreei nahiz iragaitzazko hondakinei dagokienez programatutako ikuskapen guztiak egin ditugu.

2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan

Erreferentzia: 2022-06

2.6.1.- Jarduketak

Proiektuaren harira –proiektuaren helburua da operadoreek eman dizkieten baimenen baldintzak eta IENSei buruz Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoak zein mailatan betetzen dituzten egiaztatzea–, aztertu dugu 32 operadorek zer betetze-maila izan duten euren baimenetan ezarritako baldintzei dagokionean, bai eta Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoek dagokionean ere.

2.6.2.- Ondorioak

Helburu eta xede guztiak bete ditugu, aztertu baitugu operadoreek INSEen inguruko betebeharren betetze-maila. Zentzu horretan aipatu behar dugu 30 agindei igorri dugula egindako azterketen ondorioz.



2.7.- Proiektua: EAEko nikel-mailak kontrolatzea (INOX).

Erreferentzia: 2022-07

2.7.1.- Jarduketak

INOX izeneko proiektuari dagokionean, zeinaren bitartez kontrolatu ditugun atmosferara nikel metala isurtzearen mailak altzairu herdoilgaitza ebakitzeko arku-aire prozesuren bidez, hainbat jarduketa planifikatu genuen proiektua amaitze aldera.

Zehazki identifikatzea zer enpresak/instalaziok kutsa dezaketen atmosfera EAEn nikelaz, altzairu herdoilgaitza manipulatzeko dutenean arku-aire prozesuaren bidez; balioestea eta eguneratzea egoera horretan dauden enpresen araudi-egoera; planifikatzea eta gauzatzea beharrezko irizten dugun tokietan airearen kalitatea (metalak) zaintzeko kanpainak; planifikatzea eta prozedurak ezartzea enpresak/instalazioak nola ikuskatu, eta jarraipena egitea prozesu horretan nikela murriztu behar zaien instalazioetan neurri zuzentzaileak nola gauzatzen diren ikusteko.

Horren harira aipatu behar dugu plangintzako zeregin guztiak bete ditugula, eta aurrerantzean ohiko jarraipena egingo diegu instalazio horiei.

Azpimarratu behar dugu eguneratu egin ditugula aztertu beharreko instalazioen baimenak eta metalen emisore potentzialak, nikela barne. Horietan, zenbait parametro metaliko inplementatu dugu atmosferara egiten dituzten emisio-fokuen kontrolean.

Halaber, 2022an ikuskatu dugu aztertu beharreko instalazio bat eta metalezko material partikulatua isur dezakeena, instalazioak duen kutsatze-gaitasunaren berri izateko asmoz.

Bestalde, 2022an ez dugu egin behar izan nikel isurtzeari lotutako airearen kalitatea kontrolatzeko kanpainarik; halere, instalazioek ezarri dituzte, edo ezartzeko bidean dira, metalak isurtzea murrizteko neurriak.

2.7.2.- Ondorioak

INOX proiektuaren helburuak bete ditugu, eta ondorioz proiektua bukatutzat ematen dugu.

Azpimarratu behar dugu lortu dugula erregularizatzea atmosferara nikel metala isurtzen duten altzairu herdoilgaitza ebakitzeko arku-aire prozesuren bidez egiten duten instalazioak, baita xede diren instalazioen inguruko nikel mailak murriztea ere.

Azkenik, proiektua gauzatzean eskuratutako ezagutza Ingurumen Sailburuordetzaren beste administrazio unitateetara helarazi dugu.



2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa

Erreferentzia: 2022-08

2.8.1.- Jarduketak

Ingurumen-arriskua duten bertan behera utzitako jarduera berriei dagokienez, 3 ikuskapen egin dugu 2022an. Bestalde, aurreko urtean etendako jardueren 9 espedienterako egoera eguneratzeko aktak, agindeiak eta bestelako izapidetzeak egin ditugu.

2.8.2.- Ondorioak

2017-2021 aldian murriztu da proiektuan sartutako jarduera bertan behera uztearen espediente berrien kopurua. 2022an, aldiz, bertan behera gelditutako instalazioen kopurua mantendu da.

Zentzu horretan ikusten dugu bertan behera utzitako instalazioen inguruko jarduketak denboran mantentzen direla; hortaz, 2023an eutsiko diogu urtean bertan behera utzitako Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeari, bai eta aurreko urteetan bertan behera utzitako jardueren hondakinak kudeatzeari ere.



2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa

Erreferentzia: 2022-09


2.9.1.- Jarduketak

2022an ere erantzuna eman diegu EAeko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari urteko 365 egunetan, 24 orduetan.

2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra 521 abisu kudeatu dugu, eta horietatik 66tan bertaratu gara eta beste 32tan egin ditugu zaintzak edota egiaztatzeak. Abisuen jatorria honakoa izan da: (ikus 8. taula eta 10. eta 11. irudiak)

	SOS DEIAK	ENPRESAK	NORBANAKOAK	ADMINISTRAZIOAK
OHARTARAZPEN KOP.	230	84	63	144

8. taula. Abisuen jatorria.







Honela banatzen dira abisuak, lurralde historikoaren arabera: (ikus 9. taula eta 12. eta 13. irudiak)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN KOP.	102	303	116

9. taula. Abisu kopurua, lurraldearen arabera.



12. irudia. Abisuen jatorria, %tan.




13. irudia. Abisuen jatorria, zenbakitan.

Eragindako ingurunearen eta lurraldearen araberako banaketa:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
URA	14	44	25
AIREA	40	172	46
NATURA-INGURUNEA	17	43	22
LURZORUA	31	44	23

10. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera




14. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera

Ingurumen-efektuen araberako banaketa:

	Errepideko istripua	Airera eginiko isuriak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	0	32	3	8	16	5	15	14	9
BIZKAIA	2	71	13	84	21	11	28	41	32
GIPUZKOA	1	27	7	11	5	6	22	24	13

11. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuen arabera



15. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera

Abisuak hilabeteka banatuta:

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
32	51	70	39	44	30
Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
45	38	28	50	45	49

12 taula. Zenbat abisu hilabeteka



2.9.2.- Ondorioak

2022an bete dugu EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua, eguneko 24 orduetan.

Azken urteetako antzeko abisu kopurua izan dugu, eta horiek antzeko ezaugarriak izan dituzte. Hona hemen azken urteetan jasotako abisuak:

2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
522	553	551	490	602	470	511	521

13. Taula. Abisu kopurua azken urteetan.

Nabarmendu behar ugia usainen ondoriozko kexa kopuru handia dagoela Bizkaian, eta proportzioan askoz handiagoa dela usainen ondoriozko kexen kopurua Araban eta Gipuzkoan baino. Bizkaiko usainen kexak, batez ere, Petronor, Befesa eta Glefarán enpresen eta Artigasko hondakindegia inguruan izaten dira.



3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2022-01	147	% 100
2022-02	225	% 100
2022-03	3	% 100
2022-04	75	% 100
2022-05	9	% 100
2022-06	Kualitatiboak	% 100
2022-07	Kualitatiboak	% 100
2022-08	Kualitatiboak	% 100
2022-09	Ez dagokio	Kualitatiboak

14. taula. 2022an gauzatutako ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2022-01	161	503
2022-02	225	337
2022-03	4	9
2022-04	51	195
2022-05	38	38
2022-06	32	32
2022-07	1	1
2022-08	3	12
2022-09	66	98
Guztira	581	1.225

15. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena



4. Ondorioak

2022ko Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programan ezartzen zen bezala, Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzaileak dira programa erabat gauzatzeko. Horregatik, erabilgarri zeuden baliabideak kontuan hartuta diseinatu zen programa lehentasun handieneko proiektuak abiarazita gauzatu dugu, eta gainerakoak izan ditugun baliabideen arabera hedatu ditugu.

Bestalde, Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako 2019 - 2026 Planak 5. atalean, Jardueren Lehentasuna atalean, ezartzen duen bezala, lehentasunezko zat jotzen dugu ingurumenean eragina duten gorabehera eta istripuen abisuen, kexen eta salaketen kudeaketa gainerakoen aldean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ikuskapen Zerbitzua osatzen duten 8 ikuskatzaileek 2022ko Programan definitutako proiektuak gauzatzean lortutako betetze-maila egokitzat jotzen dugu, eta proposatutako helburuak osatu ditugu.